

# Juan Jose Ibarretxe



**K**orrikari buruzko jarraipena egiten ari dira Aiaraldea.com webgunean. Bertan lekukotzak jasotzen asi dira, eta leenengoa Juan Jose Ibarretxe lendakari oiarena da. Lizentzia libreei esker, ona ekarri dogu.

Aitortu bear dizuet, ez nuen uste posiblea zenik berrogei eta piku urteekaz euskera ikastea eta are gitxiago euskeraz bizitzea; baiña onetan bere ustea ustel, ez da orrela. Ez da egia, beraz, gaztelaniaz esaten dan esaera ori: loro viejo no aprende a hablar. Zein ote da, orduan, gakoa euskera edo beste izkuntza bat ikasteko? Erantzuna, nire ustez, argi eta garbi dago: maitasuna.

Maitasuna da klabea ia gauza guztiak lortzeko bizitza onetan eta nik euskera maite dot.

Niretzat euskerena “bizitza proiektua” izan da, nire bizitzako proiekturik garrantzitsuenetariko bat. Alabekin ainbeste urte gazteleraz mintzatu ondoren orain euskera dogu gure famili izkuntza. Eta, jakiña, gauza bat da edozein alkarrizketa arrunt euskeraz egitea eta beste gauza bat barruko sentimenduak adieraztea. Orrek aldaketa kulturala dakar zure baitan, zure bizitzan, esperientzia ori bizi izan ez duen euskaldun batentzat, pertsona batentzat, ulertzea zaila da. Orregatik ere euskerarekiko nire esperientzia zoragarria da, mundiala da.

“Bidaia” benetan polita da euskeraz bizitzea, lan egitea, kirola egitea, atsedean artzea. “Bidaia” polita euskeraz kaleratzea eta nazioartera zabaltzea, munduko plazan jartzea. Ogei eta hamar urte exekutiboa izan ondoren -arloan pribatuan, naiz publikoan-, orain Unibertsitatean nago, ezagutza eta jakintzaren arloan, baiña nire lanak eta aaleginak bardiña izaten jarraitzen dau: geure erria -Euskadi edo Euskal Erria-, geure kultura eta geure izkuntza, munduko plazan kokatzea. Eta “etxean” -Euskal Errian-, zein Españan, European edo Amerikan, euskera erabiltzen dot konferentziak emoteko, nire lanak aurkezteko. Eta orregaz batera adierazten diot jendeari, guk, euskaldunok geure izkuntza -munduko izkuntzarik zaarrenetariko bat- itz egingo ez bagenu inork ez lukeela egingo eta orduan guztion kultura unibertsala ez litzatekeela aberatsagoa izango, baizik eta pobreagoa.

Aurtengo Korrikaren leloak dion moduan: emon euskera alkarri.

